

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

2153

AGINDUA, 2015eko apirilaren 27koa, Osasun sailburuarena; honen bidez, laguntzearako deia egiten zaie EAEn GIB/hiesa eta STI sexu bidez transmititzen diren infekzioak prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko eta ekimen sozialeko erakundeei.

Herri-administrazioek burututako jarduerekin batera, irabazi-asmorik gabeko eta ekimen sozialeko erakundeei GIB/hiesa eta STI alorrean EAEn gauzatutako jarduerak ezinbesteko tresna izan dira infekzio horren transmisioa prebenitzeko eta birusa duten pertsonen egoera hobetzeko lanean.

Testuinguru horretan, Osasun Sailak aurrekontu-sail bat prestatzen du diru-laguntzak emateko EAEn lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko eta ekimen sozialeko erakundeei proiektuak gauza ditzaten GIBak eta STIek sorrarazitako infekzioa kontrolatzeko eta prebenitzeko.

Deialdi honen bidez, aukera eman eta da interesa duten erakundeei diru-laguntzen programa honetako izapide guztiak modu telematikoan egiteko, horrela egitea sustatu nahi da. Hori egiteko, prozedura bat sartuko da, honako arau hauei jarraikiz: otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua, Administrazio Elektronikoa buruzkoa; abenduaren 19ko 59/2003 Legea, sinadura elektronikoa, Informazioaren Gizarteari Bultzada emateko Neurrien abenduaren 28ko 56/2007 Legeak aldatua; ekainaren 22ko 11/2007 Legea, herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzkoa, eta azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretua, aurrekoa garatzen duena; apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroak sortzeari, antolatzeari eta funtzionatzeari buruzkoa, eta Informatika eta Telekomunikazioen zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –PLATEA– ezartzen duen dokumentua onartzen duena.

Hori horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Eremua, helburuak eta xedea.

1.– Laguntzearako deia egiten zaie EAEn GIB eta STI prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko eta ekimen sozialeko erakundeei jarduerak gara ditzaten GIB eta STI bidezko infekzioa prebenitzeko eta kontrolatzeko biztanleria orokorrean eta kolektiborik kalteberenenetan, 2015ean. Laguntza horien helburua da: erakunde horiek jarduera horiek burutzen jarraitzea herri-administrazioek burutzen dituztenekin batera. Izan ere, jarduera horiek ezinbesteko tresna dira infekzio horren transmisioa prebenitzeko eta birusa duten pertsonen egoera hobetzeko.

2.– Deialdi honetako laguntzen onuradun izango dira:

a) Gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoen kolektiboari bideratzen zaizkien esku hartzeko proiektuak, ikusirik zer garrantzia epidemiologikoa duten egun kolektibo horretako GIBak eta STIek.

b) GIBari eta STIei dagokienez kalteberak diren bestelako kolektiboari bideratutako proiektuak; hala nola, etorkinei, droga bide parenteralez erabiltzen dutenei eta prostituzioan dihardutenei zuzendutako proiektuak.

c) GIBaren eta STIen infekzioaren diagnostiko goiztiarrera bideratutako proiektuak.

d) Deialdi honen helburu eta xede bera duten bestelako proiektuak.

3.– Proiektuok zer lehentasun duten zehazteko, deialdi honen helburuen arabera baloratuko dira proiektuak, agindu honen 12.1.a) artikuluan xedatutako irizpideei jarraikiz.

2. artikulua.– Zenbatekoa.

300.000 euro (hirurehun mila euro) erabiliko dira gehienez ere agindu honen bidez iragarritako diru-laguntzak finantzatzeko.

3. artikulua.– Entitate onuradunak.

Onuraduntzat joko dira: EAEn GIB/hiesa prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko eta ekimen sozialeko erakundeak, 2015ean biztanleria orokorrean eta kolektiborik kalteberenetan GIB eta STI bidezko infekzioa prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak egiteko asmoa dutenak eta horretan dihardutenak.

Erakunde onuradunek egoitza edo ordezkaritza bat eduki beharko dute Euskal Autonomia Erki-degoan.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Ezin izango da proiektuaren aurrekontu osoaren % 80 baino gehiago eskatu.

2.– Laguntzak jarduerak ordaintzeko dira, eta ez dira erabiliko langile-egitura egonkorra mantentzeko edo elkarteen azpiegitura fisikoetan inbertitzeko.

3.– Diruz lagundu ahal izango dira diru-laguntza jaso duen programarekin erlazio zuzena eta objektiboa duten jarduerak eragindako gastuak, betiere behar bezala zehazten badira entitateak aurkeztutako proiektuan eta behar bezala justifikatzen badira faktura originalaren bidez. Gastu horiek diru-laguntza jaso baino lehen gertatu ahal izango dira, baina betiere 2015ean.

4.– Jarduera batean, diruz lagundu ahal izango dira: batetik, jarduera horretako dedikazioari dagokionean, erakundearen ordaindutako pertsonalarekin zerikusia duten kostuak, eta, bestetik, zeharkako kostuetarako eskatutakoak –zenbateko osoaren % 10, gehienez– (administrazioa, kudeaketa, bulegoko materiala, telekomunikazioak, ura, gasa, elektrizitatea eta, jarduera jakin bati zuzenean egotzi ezin bazaizkio ere, burutzen den diruz-lagundutako jarduera burutzeko beharrezko diren bestelako zerbitzuak).

5.– Ezin izango dira diruz lagundu finantza-gastuak, lizentziak, inbertsio-gastuak, berandutze-gainordainak eta zergak edo Gizarte Segurantzza ez ordaintzeagatiko zehapenak.

5. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoak erabiliz egin ahal izango dituzte eskabideak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak.

2.– Honako hauek arautzen dituzte izapide elektronikoak: otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua, administrazio elektronikoari buruzkoa; apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa, eta Informatika eta Telekomunikazio zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, PLATEA e-administrazioarako plataforma teknologikoa ezartzen duen dokumentua onartzen duena.

3.– Eskabideen, erantzukizunpeko adierazpenen eta gainerako eredu guztien izapideak bertatik bertara edo modu elektronikoa egiteko argibideak, euskadi.net egoitza elektronikoa daude, honako helbide honetan, zehazki:

http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-ckproc03/es/contenidos/informacion/procedimiento_administrativo/es_proc/procedimientos_ciudadania_ayudas.html

6. artikulua.– Eskaerak aurkezteko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariari helarazi behar zaio eskabidea (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

2.– Eskabideak Hiesa eta STI Planeko bulegoetan aurkeztu ahal izango dira: Grosko osasun-zentroan (Nafarroa etorbidea 14. zenbakiko 8. solairua –20013– Donostia), Zuzenean Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko lurralde-ordezkaritzetan edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoetan. Horretarako, eskaera-orri normalizatuak erabili beharko dira, eta haien atal guztiak behar bezala bete. Eskaera-eredua arau honen I. eranskin gisa agertzen da, eta 5. artikuluan adierazitako euskadi.net-eko egoitza elektronikoa egongo da eskura.

Halaber, bitarteko elektronikoz ere aurkez daitezke eskabideak, aipatutako euskadi.net egoitza horren bidez.

3.– Erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta horri erantsi beharreko gainerako agiriak. Orobat, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da eskabidea aurkeztu ondorengo jarduketetan eta prozedura osoan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1. artikulua ezartzen duenari jarraituz.

7. artikulua.– Betebeharrak/betekizunak egiaztatzea.

1.– Laguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du, behar beste aldiz, organo kudeatzaileak, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.3 artikulua 2. paragrafoak xedatzen duenari jarraituz.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.1.bis artikuluan xedatutakoa betetzeko, honako betebeharrak hauek egiaztatu beharko dira erantzukizunpeko adierazpen baten bidez:

a) Beste edozein administrazio edo erakunde –publikoa zein pribatua– helburu bererako ematen dituen diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatuz eta, hala badagokio, eskuratuz gero, horren berri eman behar da.

b) Egiaztatu behar da erakundeak ez daukala abian itzultze- edo zehapen-prozedurarik, edo horiek amaituta dituela; hortaz, diru-laguntza emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, amaituta egon beharko dute itzultze- edo zehapen-prozedurek.

c) Erakunde eskatzaileak ez duela zehapen administratibo edo penalik jaso eta laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzea galarazten dion legezko debekurik ez duela.

d) Erakundeak legez eratuta egon behar du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko dagokion Erregistro Orokorrean behar bezala izena emanda.

Erakunde eskatzaileak edo horren ordezkari gisa diharduenak bere erantzukizunpean adierazi behar du egiazkoak direla eskabidean jasotako datuak, indarrean dagoen legediak eskubidea jasotzeko ezarritako eskakizunak betetzen dituela eta hori egiaztatzen duten dokumentuak dauzkala, eta, diru-laguntza emanez gero, eskakizunok betetzen jarraituko duela horri dagokion aldian.

Zinpeko adierazpen batean edo harekin batera aurkezten diren datu, adierazpen eta dokumentuetan funtsezko zehaztasun-gabeziaren bat, faltsukeriaren bat edo ez-egiteren bat badago, prozedura bertan behera geldituko da, gertakari horiek jakiten diren unetik, hargatik eragotzi gabe horrek ekar ditzakeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Halaber, gorabehera horien berri jasotzen duen herri-administrazioak, hala badagokio, dirua itzultzera behar dezake interesduna ebazpen baten bidez, eta denbora jakin batean zehar xede bera duen beste prozedura bat eskatzeko debekua ezar diezaioke; hori guztia, aplikatzekoak diren arauetan ezarritakoari jarraikiz.

3. Lehen aipatutako euskadi.net egoitza elektronikoan zehaztuko da nola egiaztatu behar diren gainerako eskakizunak.

8. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Erantzukizunpeko adierazpena barne hartzen duen eskaera agindu honen I. eranskinean dagoen inprimaki arautuan beteko da; 5. artikuluan adierazitako euskadi.net-eko egoitza elektronikoan ere egongo da eskuragarri izango da inprimakia.

2.– Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Aurkeztutako egitasmoak GIB/hiesaren eta STIen arloan izan dezakeen eragina azaltzen duen txostena: zeintzuk diren xedeak, nori zuzendua dagoen, zeintzuk diren hautatze-irizpideak, materiala eta metodoak, zer emaitza aurreikusten den eta zer parametro erabiliko diren haiek baloratzeko, nortzuk diren egitasmoaren arduradunak eta beste alderdi batzuk, garrantzitsutzat jotzen dituztenak.

b) Diruz laguntzeko eskatu eta 2015en egingo diren egitasmo eta egintzetako aurrekontu xehatua. Horretarako, II. eranskina beteko da.

c) Programa horiek finantzatzeko plana. Zehazki adieraziko da zein izango diren finantziazio-iturriak (izena emateko kuotak, eman diren edo ebazpenaren zain dauden beste laguntza publiko edo pribatu batzuk eta abar). Beste finantziazio-iturriren bat lortuz gero, horren berri emateko konpromisoa ere adierazi behar da.

d) Hirugarren interesdunaren datuen alta egiteko Eusko Jaurlaritzaren inprimakia, edo, hala badagokio, hirugarrenaren datuak aldatzeko eskabidearena, aurrez aurkeztu ez bada behintzat. Inprimaki hori euskadi.net-eko egoitzatik eskuratu ahal izango da:

http://www.euskadi.net/r33-2288/es/contenidos/formulario/representacion_legal/es_form/otorgamiento_representacion.html

3.– Eskaerak elektronikoki egiten dituzten erakundeek.pdf formatuan eskaneatuta aurkeztu ditzakete eskatutako dokumentuok.

9. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetan egindako akatsak zuzentzea.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluari jarraikiz, ikusten bada aurkeztutako eskabideak ez dituela betetzen aurreko artikuluetan xedatutako eskakizunak, hamar egun balioduneko epea emango zaio erakunde eskatzaileari akatsa zuzen dezan edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan. Jakinarazten zaio, halaber, hori egin ezean, eskabidea bertan behera uzten duela ulertuko dela. Dena den, Osasuneko sailburuordeak ebazpen bat eman beharko du aurrez aipatutako lege horren 42. artikuluan aurreikusi bezala.

10. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztutako agiriak balioestea.

1.– Laguntzak esleitzeko prozesuan, aurkeztutako proiektuak balioetsiko ditu batzordeak, zeinaren sorrera agindu honetako 13.1 artikuluan aurreikusia baitago.

2.– Balioespena 12. artikuluan zehazten diren irizpideen arabera egingo da. Horretarako, beharrezkotzat jotzen diren txostenak eta azalpenak eskatu ahal izango dira.

3.– Batzordeak balioespenari jarraikiz egingo duen proposamenean, honako hauek adierazi beharko ditu:

a) Diruz lagunduko diren elkarte eta egitasmoen zerrenda.

b) Proposatutako diru-laguntzen zenbateko osoa, zenbateko horren zer zati emango zaion diru-laguntza jasoko duen proiektu bakoitzari eta hori nola banatzen den programa osatzen duten partiden artean.

4.– Proiektu bat diruz lagungarri dela irizten bada, aurkeztutako aurrekontuaren eta –halakorik balego– bestelako finantziazio-iturrien arabera zehaztuko da laguntzaren zenbatekoa. Dena den, ezingo du aurrekontu horren % 80 gainditu, ezta honako kopuru hau ere: 50.000 euro proiektuko. Erakundeak proiektu horretarako beste laguntzarik badu beste erakunde batzuegandik, helburu bererako eskuratuko dituen laguntzen guztirako zenbatekoak ez du gaindituko proiektuaren kostu osoa.

11. artikulua.– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Agindu honetan ezarritako araubidearen babesean emandako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako emandako beste laguntza batzuekin.

Proiektu bera gauzatzeko zenbait finantzaketa-iturrik emandako laguntzen zenbatekoak proiektuaren beraren kostua gainditzen badu, gehiegizko zenbateko hori kenduko zaio agindu honen babesean emandako diru-laguntzaren zenbatekoari, guztirako zenbatekoa proiektuaren kostuarekin berdindu arte.

12. artikulua.– Proiektuak balioesteko irizpideak.

1.– Balioeste-irizpideek, dagokien haztapenarekin, eskabideen arteko hurrenkera bat ezartzea ahalbidetuko dute. Hauek dira balioeste-irizpideak: gehienez 100 puntu eskuratu ahal izango dira, eta, gutxienez, 50 puntu. 50 puntu baino gutxiago lortzen duten eskabideek ez dute diru-laguntzarik jasoko.

a) Deialdiaren helburuen arabera, lehentasunezko kolektibo eta edukien balioespena: gehienez 25 puntu.

1) Gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoen kolektiboari bideratzen diren esku hartzeko proiektuak; izan ere, GIB eta STI epidemiologikoki oso garrantzitsuak dira kolektibo horretan. 12 puntu.

- 2) GIB eta STI infekzioen diagnostiko goiztiarrera bideratutako proiektuak: 6 puntu.
- 3) GIBari eta STIei dagokienean kalteberak diren bestelako kolektiboetara bideratutako proiektuak; hala nola etorkinak, droga bide parenteraletan erabiltzen dutenak eta prostituzioan dihardutenak. 5 puntu.
- 4) Deialdi honen helburu eta xedera egokitzen diren bestelako proiektuak: 2 puntu.
 - b) Diseinuaren kalitate teknikoa: harreman koherentea izatea eragin nahi zaien faktoreen, lortu nahi diren helburu espezifikoaren, helburu horiek eskuratzeko aurreikusitako jardueren eta helburu horien lortzen-mailaren adierazlearen ebaluazioaren artean. gehienez 20 puntu.
 - c) Erakundearen ibilbidea eta esperientzia, eta zer jarraipen duen proposatutako jarduerak edo proiektuak: gehienez 20 puntu.
 - d) Jardueraren diseinuan eta bilakaeran ekintza boluntarioko berezko balio erantsiak gehitzea, elkar laguntzea sustatzea, eta esku-hartzearen hartzailerak diren pertsonen horren diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan parte hartzea: gehienez 10 puntu.
 - e) Jardueraren biztanle-estaldura (pertsona jasotzaile- edo onuradun-kopurua, zuzenean edo zeharka) eta desberdintasun sozioekonomikoetara erantzutea: gehienez 10 puntu.
 - f) Jarduera ekimen sozialeko beste erakunde batzuekin, beste federazio eta/edo beste erakunde batzuekin koordinatuta eta lankidetzan gauzatzea, hots, sare-lana sustatzea: gehienez 5 puntu.
 - g) Proposatutako jarduerak izaera berritzailea izatea, edo, aurreko urtearekin alderatuta, hobekuntza berritzaileak sartzeko proiektuak: gehienez 5 puntu.
 - h) Ezarritako koordinazioa eta aurreikusitako sinergia, jardueraren eta osasun-esparruko eta/edo osasun- eta gizarte-esparruko prestazio, zerbitzu, jardura eta politika publikoaren artean: gehienez 5 puntu.

2.– Diru-laguntza jaso ahal izateko, eskabideek gutxienez 32,5 puntu eskuratu beharko dute a), b) eta c) ataletako puntuazioa batuta. Atal horietako bakoitzak, bere aldetik, beste bi ataletako bakoitzaren puntuaren erdiak izan beharko ditu, gutxienez.

13. artikulua.– Eskabideen prozedura eta balorazioa.

1.– Aurkeztutako eskabideak ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, honako hauek osatuko dutena: Miren Dorronsoro Iraeta Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria (batzordeburua), Daniel Zulaika Aristi HIES eta STI planeko arduraduna eta Osasun Saileko lurralde-ordetza Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariordearen kargua betetzen duten pertsonak (Concha Castells Carrillo, Maribel Larrañaga Padilla eta Juan Carlos Fernández Crespo). Batzordekideek erabakiko dute nori izango den kide anitzeko organoko idazkaria.

2.– Balioespen-batzorde horretako osaketa parekidea izatea zainduko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 artikuluan ezarritakoari jarraituz, zeinak baitio euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituztela emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan.

3.– Epean eta modu egokian entregatutako dokumentazioaren arabera ebaluatuko ditu eskaerak balioespen-batzordeak.

4.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, laguntzak kudeatzen dituen organo den heinean, eta balioespen-batzordeak beharrezko irizten badute, informazio eta dokumentazio osa-

garria eskatu ahal izango diete erakunde eskatzaileei, aurkeztutako proiektua edo jarduera hobeki ulertu ahal izateko.

5.– Balorazio-batzordeak erabakiko ditu zenbateko diru-laguntza eman ahal izango zaion gehienez ere programa bakoitzari, eta zer puntuazio jaso duen programa bakoitzak agindu honetan adierazitako balorazio-irizpideen arabera. Laguntzetarako aurreikusitako aurrekontu-kreditua ez bada nahikoa gutxienerako puntuazioa edo handiagoa lortu duten jardueretarako aurreikusitako diru-laguntza guztiak emateko, puntuazioa handiena lortu duten jardueretatik hasiko gara diru-laguntzak ematen, harik eta aurrekontu-kreditua agortzen den arte.

6.– Agindu honetan araututako diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauen Legearen Testu Bateginaren 51.4. artikuluari jarraikiz, lehiaketatzat joko da aurkeztutako eskabideak erkatuz diru-laguntzak emateko prozedura. Diru-laguntzak arautzen dituzten arauetan aurrez ezarritako balioespen-irizpideen arabera, eskabideen lehentasun-ordena ezarriko da, eta aipatutako irizpideen arabera balioespen handiena jaso dutenei esleituko zaizkie laguntzak.

14. artikulua.– Lehiaketaren ebazpena.

1.– Balorazio-batzordearen proposamenari jarraikiz, Osasun sailburuordeak ebatziko du prozedura, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta 4 hilabeteko epean, eta ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da erakunde interesdunek horren berri izan dezaten, ebazpena inpugnatzeko epea zenbatzen hasteko eta laguntzak deialdian xedatutako moduan ordaintzeko. Hori gorabehera, ebazpenak banaka ere jakinarazi ahal izango dira.

2.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osasun sailburuari, hila-beteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, betiere urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako 30/1992 Legearen 114. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

15. artikulua.– – Isilbidez ezestea.

Agindu honetan araututako laguntzak ebazteko aurreko artikuluan ezarritako epea igarota, ez bada espresuki ebazpenik eman, eskabideak ezetsi egin direla ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hargatik eragotzi gabe administrazioak espresuki ebazteko betebeharra.

16. artikulua.– Erakunde onuradunen betekizunak.

1.– Honako betebeharrak hauek izango dituzte agindu honetan araututako diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Hain zuzen, diru-laguntzak esleitzeko ebazpena EHAAan argitaratu eta hamar egun balioduneko epean erakundeek ez badiote horri espresuki uko egiten, laguntza onartzen dutela ulertuko da.

b) Diru-laguntza, eman den helbururako erabili beharko dute.

c) Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko, erakunde eskatzaileek haien zerga-betebeharrak bete beharko dituzte, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduan xedatutakoari jarraikiz, eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere bete beharko dituzte.

d) Diru-laguntza emateko eta, hala dagokionean, ordaintzeko, amaitua izan beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuen esparruan hasitako eta oraindik izapidetzen ari den itzulketa- edo zehapen-prozedura oro.

e) Eskatzen duten informazio guztia eman beharko diete Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, horiek hobeki gauza ditzaten deialdi honetan araututako diru-laguntzen gaineko betekizun guztiak.

f) Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartu den edozein egoera aldatu bada, izan objektiboa edo izan subjektiboa, hala jakinarazi beharko diote Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari.

2.– Hautatutako erakundeek agindu honen bidez finantzatutako programak edo jarduerak argitaratzen badituzte, honako testu hau jaso beharko dute espresuki: «Osasun Sailak diruz lagundua, Hiesaren eta Sexu Transmisiozko Infekzioen Prebentzio Plana».

3.– Egitasmoak informazio materiala (idatzia zein ikus-entzunezkoa) argitaratzea ere aurreikusiten badu, argitaratu aurretik Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren oniritzia eta baimena lortu beharko ditu.

17. artikulua.– Datuen babesa.

Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak eskatzean ematen diren datuak «Laguntzak jasoko dituzten entitateak» fitxategian sartuko dira, 2011ko abenduaren 22ko Aginduan ezartzen den moduan; agindu horren bitartez arautzen dira Osasun Sailaren eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren izaera pertsonaleko datuen fitxategiak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesten dituen 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz. Fitxategi horretako datuak ezin zaizkie hirugarrenei edo beste erakunde batzuei utzi, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak erakunde eskatzaileen laguntzak kudeatzeko baino ez ditu erabiliko. Nahi izanez gero, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak erabil ditzake nahi duenak, legean xedatutakoarekin bat etorritik; horretarako, idazki bat igorri beharko dio Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari.

18. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea.

Onuradunek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute 2015eko azaroaren 21a baino lehenago Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzan egiaztatzeko emandako helbururako erabili dutela jasotako diru-laguntza guztia:

a) Txosten teknikoa, aurreikusitako helburuak zer neurritan bete diren eta helburu horietako bakoitzaren betetze-mailaren gaineko ebaluazioa azalduko duena.

b) 2015. urteko gastuen memoria (III. eranskina) edo justifikazio-kontua, zeinetan adierazten baita zer dokumentu aurkezten diren eta horien zenbatekoak. Diru-laguntza emateko ebazpenean zehaztutako gastu-kontzeptuen arabera taldekatu behar dira horiek aginduaren III. eranskinean jasotako ereduaren arabera. 5. artikuluan aipatutako egoitza elektronikoa ere eskuragarri dago eredu hori.

c) Gastuak diru-laguntzaren xedea betetzeko erabili direla egiaztatzeko, faktura originalak edo konpultsatuak aurkeztu beharko dira, edo egiaztapen-balioa duten gainerako dokumentu balioki-deak, zuzenbide- eta merkataritza-zirkulazioan balioa dutenak edo administrazio-eraginkortasuna dutenak.

d) Jarduera edo zerbitzua gauzatu dutela edo diru-laguntzaren xedea bete dutela egiaztatzen duen beste edozein agiri.

Eskabidea baliabide elektronikoz egiten dituzten erakundeek pdf formatuan aurkeztu ahal izango dituzte agiriak, hargatik eragotzi gabe Osasun Sailak gero egiaztatzea paperezko fakturak, originalak edo konpultsatuak.

19. artikulua.– Justifikatzeko aurkeztutako dokumentuetako akatsak zuzentzea.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, egiaztapenerako aurkeztutako dokumentuetan akatsen bat badago, edo dokumenturen bat falta bada, hamar egun balioduneko epea emango zaio erakundeari, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, akatsa konpon dezan edo eskatzen dioten dokumentua aurkez dezan. Ez badu eskakizun hori epe eta modu egokian betetzen, dagokion eskakizuna egiaztatu gabe dagoela ulertuko da, eta agindu honen 22. artikuluan aurreikusitako ondorioak aplikatuko.

20. artikulua.– Ordaintzeko era.

Honela ordainduko da agindu honen babesean emandako diru-laguntzari dagokion zenbatekoa:

a) Diru-laguntzaren % 80 ordainduko da hasierako ordainketan, behin ebazpena onartu eta argitaratu ostean, eta erakunde onuradunak emandako diru-laguntzari uko egiteko epean horrelakorik egin ez badu.

b) Gainerakoa kobratzeko (emandako zenbatekoaren % 20a), diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du erakunde onuradunak, 18. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Diru-laguntza eman zen ekitalditik kanpo gauzatzen bada bigarren ordainketa hori, organo kudeatzaileak ofizios egiaztatuko du erakundeak bere betebeharrak bete dituela erakundeari dagozkion foru-ogasunaren eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorren aurrean.

21. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, baina haren xedea mantentzen dela ulertzen bada, eta, hala badagokio, beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu badira beste erakunde publiko edo pribatu batengandik, diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Ondorio horietarako, Osasuneko sailburuordeak dagokion likidazio-ebazpena egingo du, emandako diru-laguntzen zenbatekoak egokitzeko.

22. artikulua.– Ez-betetzeak.

Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautzen eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, jardunbidea eta obligazioak ezartzen dituztenean, xedatutakoari jarraikiz, erakunde onuradunak ez baditu betetzen agindu honetan jasotako eskakizunak eta xedeak, edo jarraian jasotzen den ez-betetzeetako bat gauzatzen badu, laguntza jasotzeko eskubidea galdu duela aitortuko da, dagozkion prozedura-izapideak egin ostean, eta, hala badagokio, ordurako jaso dituen zenbatekoak eta horien interesak itzuli beharko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Orokorri, hargatik eragotzi gabe egin beharreko gainerako ekintzak.

Aipatutako zenbatekoak diru-sarrera publikotzat joko dira ondorio guztietarako.

Osasun Saileko Osasuneko sailburuordeak izango du eskumena ez-betetzeagatiko espedientea hasi eta ebazteko.

Ez-betetzeei dagozkien egoera espezifikoak dira, beste batzuen artean, honako hauek:

- a) Laguntza lortzea, horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe.
- b) Diru-laguntzaren xede gisa proposatutako jarduerak ez gauzatzea.
- c) Ez betetzea diru-laguntzaren xede zen helburua.
- d) Diru-laguntzaren emate-erabakian ezarritako baldintzak ez betetzea.
- e) Gastuak ez egiaztatzea agindu honetan xedatutako moduan eta epean.
- f) Ezarritako kontrol-jarduerei uko egitea edo haiek oztopatzea.
- g) Jarduerak behar baino finantziazio handiagoa lortzea eragingo luketen beste laguntza batzuk lortuz gero, Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzari ez jakinaraztea.

23. artikulua.– Diruz lagundutako proiektuaren jarraipena.

Osasun Sailak beharrezko iritzitako gainbegiratzeak, ikuskapenak eta egiaztatzeak egingo ditu, xedapen honetan jasotako arauak betetzen direla egiaztatzeko. Halaber, publikoki erabili ahal izango ditu, uneoro, emandako diru-laguntzen bidez gauzatutako programen eta jardueren edukiak eta emaitzak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa ezar dakiokete Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean agindua EHAAn argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honetan azaltzen ez den guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak xedatutakoa aplikatuko da, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean emandako idazketaren arabera.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamuneari sartuko da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 27a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.

I. ERANSKINA

EAEN GIB/HIESA ETA STI PREBENITZEKO ETA KONTROLATZEKO JARDUERAK
EGITEN DITUZTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ETA EKIMEN SOZIALEKO
ENTITATEEI BIDERATUTAKO LAGUNTZEN ESKABIDEA

Izar txoa (*) daramaten datuak nahitaezkoak dira

ESKABIDEA NORK AURKEZTEN DUEN *

 Titularra Ordezkarria

DATU PERTSONALAK

:: TITULARRA /SOZIJATEAREN HELBIDEA		
Izena / Entitatearen izena *		Agiri-mota*
Lehen abizena *	Bigarren abizena *	Zenbakia*
Tel. finkoa	Tel. mugikorra	Sexua * <input type="radio"/> Gizona <input type="radio"/> Emakumea
:: ORDEZKARIA		
Izena / Entitatearen izena *		Agiri-mota*
Lehen abizena *	Bigarren abizena *	Zenbakia
Tel. finkoa	Tel. mugikorra	Sexua * <input type="radio"/> Gizona <input type="radio"/> Emakumea

2

JAKINARAZPENA *

 Elektronikoa Postala

POSTA BIDEZKOETARAKO (Posta bidezko jakinarazpenetarako bakarrik)

Herrialdea*	_____		
Helbidea*	_____	Solairua	Hizkia
PK*	Udalerrria* _____	Probintzia* _____	

JAKINARAZPEN TELEMATIKORAKO OHARRA

Posta elektronikoa (puntu eta koma (;) batez banaturik)
Mugikorraren zk. (sms) (puntu eta koma (;) batez banaturik)

HIZKUNTZA HONETAN JASO NAHI DITUT JAKINARAZPEN ETA ABISUAK *

O Euskara

O Gaztelania

BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

Titularraren betebeharrak fiskalei buruzko informazioa duen Zerga Administrazioa dagoen herrialdea/probintzia* _____

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Ez dut xede eta helburu bererako beste administrazio batek emandako laguntzarik jaso
–publikoa zein pribatua–.

Beste administrazio baten –publikoa zein pribatua– laguntza eskatu dut, eta eman egin didate (puntu honetako datuak eranskinean zehaztu behar dira)

Beste administrazio baten –publikoa zein pribatua– laguntza eskatu dut, eta ebazteko zain nago (puntu honetako datuak eranskinean zehaztu behar dira)

Erakunde eskatzailea legez eratu eta erregistroan erregistratua dago:*

Ez dut diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten didan zehazpen penal edo administratiborik; ez dut horretarako gaitasuna kentzen didan legezko debekurik ere.

Ez nagoela dirua itzultzeko edo zehapenen bat ezartzeko prozeduraren batean sartuta
–oraindik izapidetzen ari direnak–

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan.

Egunean dira indarreko xedapenek ezartzen dituzten nire zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu den bezala.

Egiazkoak dira eskaeran eta eskaerarekin batera doazen agirietan emandako datuak.

Laguntza hauen onuraduna izateko indarrean dauden legeek ezarritako baldintzak betetzen ditut.

BAIMENAK**Identifikazio-datuak**

Baimena ematen diot deialdiaren erakunde kudeatzaileari eskumena duen Administrazioan egiaztatzeko edo ziurtatzeko, bide telematikoen bidez, edo, hala badagokio, eskura daudenen bidez.

DATU PERTSONALEN BABESA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) xedatzen dena betetzeko, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza jakinarazten dizu eskaera honetan adierazi dituzun datuak bere titulartasuneko "Laguntzak jasoko dituzten entitateak" izeneko fitxategian gordeko direla, Osasun eta Kontsumo sailburuak 2011ko abenduaren 22an emandako AGINDUAN azaltzen den moduan. Agindu horren bidez, Osasun eta Kontsumo Saileko eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren datu pertsonalen fitxategiak arautzen dira, zeina Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoaren mende baitago. Fitxategi horretako datuak ezin zaizkie hirugarrenei edo beste erakunde batzuei utzi, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak erakunde eskatzaileen laguntzak kudeatzeko baino ez ditu erabiliko. Nahi izanez gero, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak erabil ditzake nahi duenak, legean xedatutakoarekin bat etorritik; horretarako, idazki bat igorri beharko dio Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari (Donostia-San Sebastian kaleko 1. zenbakia - 01010 Vitoria-Gasteiz).

Administrazio Publikoak erkatu egin ahal izango ditu aurkeztutako datuak, bai eta egoki irizitako egiaztapenak egin ere, laguntza behar bezala esleitzeko.

_____n, _____an

(Interesdunaren edo ordezkariaren
sinadura)

DOKUMENTUARI BURUZKO ARGIBIDEAK

D ESKABIDEA NORK AURKEZTEN DUEN

Eskatzaileak bere izenean badihardu, "Titularra" aukera hautatu beharko du "ESKABIDEA NORK AURKEZTU DUEN" atalean, eta titularrari dagozkion datuak bete beharko ditu "DATU PERTSONALAK" atalean. Titularraren sinadura.

Eskatzaileak beste pertsona baten izenean badihardu, "ESKABIDEA NORK AURKEZTU DUEN" atalean "Ordezkarria" aukera hautatu behar du ordezkatzen duen pertsonari dagozkion datuak bete behar ditu "DATU PERTSONALAK" atalean, eta bereak, berriz, "Ordezkarria" atalean. Ordezkarriaren sinadura.

Pertsona juridikoek ordezkariekin jardungo dute beti, beraz, "ESKABIDEA NORK AURKEZTEN DUEN" atalean "Ordezkarria" aukera hautatu behar du eta "DATU PERTSONALAK" atala titular gisa entitatearen datuak eta entitatearen ordezkarriarenak "Ordezkarria" atalean. Eskabidea ordezkarriak sinatuko du.

11. JAKINARAZPENA

Eskatzaileak hauta dezake zein baliabide erabiliz jaso nahi dituen jakinarazpenak: posta bidez edo bide elektronikoz.

POSTA BIDEZKOA: "POSTA BIDEZKO JAKINARAZPENETARAKO" atalean zehazten duen helbidera igorriko zaizkio jakinarazpenak.

BIDE ELEKTRONIKOA: pertsona eskatzaileak "Nire kudeaketak" jakinarazpen-bandejan jasoko ditu jakinarazpenak, web-orri honetan www.euskadi.net/misgestiones. "Nire kudeaketak"-en sartzeko, eskatzaileak aitortutako egiaztagiri elektronikoa bat behar du (ONA, e-NAN, herritartasun-ziurtagiria, entitatea, FNMT, ...)

11 POSTA BIDEZKOETARAKO (Posta bidezko jakinarazpenetarako bakarrik

Pertsona eskatzaileak jakinarazpen elektronikoa jasotzea hautatu badu, Administrazioak posta elektronikoa bidezko edo mugikor bidezko zerbitzu bat jarriko du bere esku, jakinarazpen bat egiten duen bakoitzean, horren berri emango diona.

Nahi adina posta elektronikoa eta telefono mugikor zenbaki sartu ahal izango dira, bietan, puntu eta koma (;) bidez bereizita, betiere.

II. ERANSKINA

PROGRAMA BAKOITZAREN AURREKONTU ZEHATZA. EAEN GIB/HIESA ETA STI PREBENITZEKO ETA KONTROLATZEKO JARDUERAK EGITEN DITUZTEN IRABAZI- ASMORIK GABEKO ETA EKIMEN SOZIALEKO ENTITATEEI BIDERATUTAKO LAGUNTZAK

Izartxo (*) daramaten datuak nahitaezkoak dira.

DATU OROKORRAK

Entitatearen izena*:

Programaren izenburua

PROGRAMAREN DATUAK

Partez edo osorik diru laguntzea eskatzen den programaren izena:*

Programaren helburua

Programa zein kolektibori zuzentzen zaion:*

Kolektiboa zenbat pertsonak osatzen duten, gutxi gorabehera:*

PROGRAMAREN AURREKONTU OSOAREN XEHAKAPENA

Zuzeneko gastuak: kontzeptua	Aurrekontua, guztira	Zenbat eskatzen den Hiesa eta STI planerako
Langileak (nominak eta gizarte segurantzako gastuak)		
Profesional independenteen zerbitzuak		
Argitalpenak eta komunikazio-jarduerak		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Zuzeneko gastuak, guztira		

Zeharkako gastuak	Aurrekontua, guztira	Zenbat eskatzen den Hiesa eta STI planerako (eskatutako guztizkoaren % 10, gehienez)
Alokairu eta errentamenduak		
Kudeaketa eta administrazioa		
Bulegoko materiala		
Bestelako zerbitzuak (elektrizitatea, gasa eta abar)		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Zeharkako gastuak, guztira		

Proiektua finantzatzeko iturriak	Zenbatekoa (euroak)
Erakundearenak berarenak	
Erabiltzaileen ekarpenak	
Hiesa eta STI Plana diruz laguntzeko egungo eskaera	
Beste erakunde batzuk (zehaztu)	
Beste erakunde batzuk (zehaztu)	
Bestelako sarrerak (zehaztu)	
Guztira	

Programarentzat eskatutako bestelako laguntza batzuk	Eskatutako zenbatekoa
Erakundea:	
Erakundea:	
Erakundea:	
Guztira	

ZEIN ERREGISTROTAN 1 ERROLDATAN INSKRIBATUTA DAGOEN

Erregistroaren / Erroldaren izena: *

Erregistroaren data: *

Erregistro-zenbakia: *

Estatutuen arabera, hau da entitatearen helburua (hitzez hitz kopiatu): *

ZUZENDARITZA-BATZORDEKO KIDEAK:

Gobernuko kide anitzeko organoa/Erakundearen Zuzendaritza Batzordeko kideak, eskabidea aurkeztean indarrean dena eta dagokion erregistroan edo erroldan inskribatua (hitzez hitz kopiatu, eta izenak eta karguak adierazi. Erakundearen estatutuek aurreikusten ez baduten gobernuko kide anitzeko organo bat egotea, lehendakari, idazkari eta diruzain izango diren pertsonen izenak eta karguak zehaztu):

Izena	Kargua
	Presidentea

[+ Lerroa gehitu

Izenpea:

Entitatearen arduraduna edo lehendakaria

III. ERANSKINA**GASTUEN MEMORIA****EAEN GIB/HIESA ETA STI PREBENITZEKO ETA KONTROLATZEKO JARDUERAK EGITEN
DITUZTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ETA EKIMEN SOZIALEKO ENTITATEEI
BIDERATUTAKO LAGUNTZAK**

Izartxo (*) daramaten datuak nahitaezkoak dira.

ERAKUNDEAREN DATUAK

Entitatearen izena*:

PROGRAMAREN DATUAK

Programaren izenburua

PROGRAMARI EMANDAKO ZENBATEKOA DEIALDI HONETAN

2015eko maiatzaren 18a, astelehena

Zuzeneko gastuak: kontzeptua	Egindako proiektuaren gastuak, guztira	Hiesa eta STI Plana diruz laguntzeko emandako zenbatekoa
Langileak (nominak eta gizarte segurantzako gastuak)		
Profesional independenteen zerbitzuak		
Argitalpenak eta komunikazio-jarduerak		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Zuzeneko gastuak, guztira		

Zuzeneko gastuak: kontzeptua	Egindako programaren gastuak, guztira	Hiesa eta STI Plana diruz laguntzeko emandako zenbatekoa (emandako zenbatekoaren % 10, gehienez)
Alokairu eta errentamenduak		
Kudeaketa eta administrazioa		
Bulegoko materiala		
Bestelako zerbitzuak (elektrizitatea, gasa eta abar)		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Zeharkako gastuak, guztira		

Proiektua finantzatzeko bestelako iturriak	Zenbatekoa (euroak)
Erakundearenak berarenak	
Erabiltzaileen ekarpenak	
Hiesa eta STI Planerako emandako diru-laguntza	
Beste erakunde batzuk (zehaztu)	
Beste erakunde batzuk (zehaztu)	
Bestelako sarrerak (zehaztu)	
Guztira	

Deialdi honen bidez emandako zenbatekoak gehi beste finantzaketa-iturri batzuen bidez jasotakoak ezin du egindako gastua baino handiago izan.

Adierazten dut egiazkoak direla eskaeran eta eskaerarekin batera doazen agirietan emandako datuak.

Izenpea:

Entitatearen arduraduna edo lehendakaria